

## R.I.P. POESIA

Iraitz Ugalde Pikabea, 17 urte

*Lezo*

Etengailuaren instalazio elektrikoan hegan  
dabiltzan elektroiek

ilunaren magia apurtu dute,  
gaua deuseztatu,  
*klik* batez argia piztu.

K.O geratu da gauaren erregina  
*ringean*,  
epaileak hiru arte zenbatu dituenean  
zoruaren aurkako kolpeak.

Eta sasi-zientzialariren batek ipar izarraren  
erradioa neurtu du,

haren edertasuna zenbaki hutsal batera mugatuz.

Ilargiaren inklinazioa  
ekuazio matematiko konplexu batean sinplifikatu da,

berezko argirik ez duela esan,  
haren kulunkaren gozoa mikaztuz,  
mozkor,

bere usain horia itzaliz,  
gauaren izara beltzean  
soka gardenaz zintzilik dirauen apaingarri  
soila izatera kondenatuz.

Musika ere idatzi da,  
pentagrama marradunetan,  
hizki doinutsuez,  
puntu beltz batek dimentsio oso bat bilduko  
balu legez bere baitan.

Oso beltza beharko izan, bai.

Eta sexuaren zirrarak sakonenari ere jarri  
zaio izena gaurkoan,

plazera izoztu nahi zuen norbaitek,  
berotasuna letrez esan.

Saiakera antzuagorik...

Eta eskoletan irakatsi da hori guztia.

Baita denboraren neurketa ere,  
finean guztiok gorroto dugun izaki ikusezin  
horrena.

Eta dena baino gorrotagarriago bilakatu dute  
mugitzeari uzten ez dioten orratz azkarregiek.  
Beso zorrotz zulatzaileak.

Une horretantxe,  
hamaika kilometro eta erdi harantzago,  
ene poesiaren hegaldak pausatu da  
*Telefonikaren* kable batean.  
enara bat bailitzan.  
Eta elektrokutatu,

beste elektroï tropel batek bidea aurkitu due-  
nean.

Mila bider madarikatu du  
poesia kiskaliak  
elektrizitatea aurkitu zuena  
kabletik lurrerako bidean.  
978m/s.

5 segundo eta 96 ehuneneko zehazki,  
grabitatearen legeaz,  
poesiaren eraiketak iraun duena.  
Ez gehiago.

Ez diot agurrik esan.  
Ez du hotsik atera lurraren aurka jotzean.  
Ez da inor ohartu.

Naturaren infinitotasuna ere,  
zortzi etzan batez irudikatu da,  
hori ere gutxietsiz.  
zortzi hizkiz biziaren atalik luzeena zenbakituz,  
deskonposatuz,  
inongo laborategiren batean.

Errudun sentitu naiz,  
hitz hauez mundu ezagunegi hau berriro defi-  
nitzean.

Izan ere, gaur poesia hil da.  
*Telefonikaren* kabletik zorura,  
zientziaren arlote askutan.

Horregatik ez da eguzkia irtengo.

Nahigabeak jan nau berriz,  
beste gizaki okagarri bat soilik naizela  
ohartzean,  
onartzean...

Barruan burrunba.

Zorionari hurreratzeko gai ez den espezie  
azkarregia besterik ez gara,  
gure zenbakien mundu milimetratuan.

Poesiaren erailketa.

Maile hotsa auzitegian.

Pum !

Errudunak !

Poesia erail didazue !